Lezoko Unibertsitateko Udala

2026H0100002

# KONTRATUAREN BEHARRA

## ESPEDIENTEAREN DATUAK

| | |
|---|---|
| **Gaia:** | **OBRA KONTRATAZIOA – PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA** |
| **Obra:** | **ALTAMIRA AUZOKO ETXEBIZITZA-ERAIKINEN IRISGARRITASUNA HOBETZEA** |
| **Kokapena:** | **TOMAS GARBIZU KALEA, 1, 2, 3, 4, 5, 9 ETA 10 ATARIAK (ALTAMIRA AUZOA)** |
| **Proiektuko aurrekontua:** | **97.722,22 € (GAUZATZE MATERIALAREN AURREKONTUA, 2026KO ERANSKINAREN ARABERA)** |

## TXOSTENA

Proposatzen dudan kontratuaren xedea **Altamira auzoko etxebizitza-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko obra** da: Tomas Garbizu kaleko 1., 2., 3., 4., 5., 9. eta 10. atarien aurreko espazio publikoa berrurbanizatzea, atari horietara eskailerarik gabe sartu ahal izateko. Horretarako prozedura ireki sinplifikatuaren bidezko kontratua egitea proposatzen da.

116.289,44 €-ko aurrekontua du (BEZ gabe), eta 140.710,22 €-koa BEZa barne. Udal aurrekontuetan jasoa dago, 1 601.01.134.10 2026 partidan eragingo duen gastua.

Kontratua honengatik da beharrezkoa: Altamira auzoko eraikinak orografia malkartsuko lurrean daude, eta atari bakoitzaren eta espaloiaren artean kota-diferentzia handiak daude. Gaur egun atari horietako askotara eskaileren bidez baino ezin da iritsi; horren ondorioz, mugikortasun murriztua duten pertsonek, adinekoek eta haur-gurditxoekin dabiltzanek zailtasun handiak dituzte beren etxebizitzetara sartzeko. Obraren bidez eskailerak arrapalekin ordezkatuko dira, espaloitik atari bakoitzera gutxienez eskailerarik gabeko ibilbide bat egon dadin. Aldi berean, hondatuta dauden urbanizazio elementuak berrituko dira (barandak eta erregistro-tapak) eta eremuko saneamendu sarea egokituko da. Proiektuaren arabera, jarduketak zuzenean auzoko 446 bizilagunei egingo die mesede.

Obra **Altamira auzoko etxebizitza-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko proiektuak** definitzen du. Proiektua Altair Ingeniería & Arquitectura, S.L. enpresak idatzi zuen Udalaren enkarguz, 2020ko abenduan. Proiektua idatzi ondoren, Añarbeko Uren Mankomunitateak obra bat egin du auzoan, ur zikinak eta euri-urak sare banatuetan bereizteko. Obra horrek proiektuak ukitzen zituen instalazioak aldatu ditu; horregatik, proiektuari eranskin bat gehitu zaio, plano berriekin eta aldaketa horien araberako aurrekontu eguneratuarekin.

Udalak gaur egun dituen baliabideak eta zerbitzuak ez dira nahikoak mota honetako lanak gauzatu ahal izateko; horregatik, beharrezkoa da kanpo kontratazioaren bidez bideratzea.

2026H0100002

Obra kontratazioa izanik, espedientean lotuta daude 2020ko obra proiektua osorik eta 2026ko eranskina; biek batera jasotzen dute lanak gauzatzeko beharrezkoa den informazioa.

Hori guztiagatik, hona hemen nire PROPOSAMENA:

**BAT**: Altamira auzoko etxebizitza-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko obra kontratua burutzeko espedientea hastea, prozedura ireki sinplifikatuaren bidez.

Sinatzailea Arkitektoa, Miren Dorleta Erausquin Alijostes

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://munigex.net/r/0/53/AAAA635HE.FbgA